



2021eko martxoaren 6a eta 7a

Adiskideok,

Ziurgabetasun une hauetan, gogoan hartu nahi ditugu gehien sufritzen duten pertsonak, hurbiltasuna adierazi eta itxaropena ematen jarraitu nahian. Gaixotasunak gure arreta osoa bereganatu du, eta, gainera, nabaritzen ari gara osasun-krisi honek ondorio sozioekonomikoak izango dituela, eta, betiko moduan, berdintasun ezaren logika errukigabetik zabalduko direla. Ondorioek gogorrago eragingo diete babesgabetasun edota bazterkeria egoeran dauden familia, pertsona eta talde sozialei, eta luzeago iraungo dute. Baliteke kroniko bihurtzea ere.

Hori dela eta, Caritasen kristau komunitate abegitsu baten egitekoari buruz hausnarketa egitera “gonbidatu” nahi zaitugu. Izan ere, aldarrikatzen dugunaren eta gure eguneroko lanaren arteko koherentzia ahalik eta handiena bilatu nahi dugu. Zehazteko gai garen proposamenak gure komunitateen harrera-adierazleen lekuko, seinale eta adierazle izango dira.

Irakurketa hau datorkigu berriz burura: “Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; ez da arantzatik pikurik biltzen, ezta sasitik ere mahatsik hartzen.” (Lc 6, 44a. 45a)

Kanpaina honetan gure arreta finkatu nahi dugu gizarteratzearen oinarrizko arloetako batean: enplegua. Pertsonen autonomia bideratzen duen oinarrizko elementua da, baina berriz diogu, ez du balio edozein enpleguk; pertsonen gaitasunak garatzeko balio behar du, eta duintasuna aitortu eta errespetatu. “Enplegu inklusiboa” deitzen diogu. Kanpainaren kartelean gure enpresen adibideak ikusten dira. Horiei babesa emateko eskatu nahi dizugu, ekonomia sozial eta solidarioa eraikitzeko.

Egunero senidetasunezko gizarte baten alde borrokatu eta konprometitzeko fedea ospatu dezagun, alaitasunez, denok elkarrekin.

Jaso besarkada epela.

Carlos Bargos  
Zuzendaria



6 y 7 de marzo de 2021

Estimada amiga, estimado amigo,

En estos momentos de incertidumbre general, queremos de nuevo, tener especialmente presentes a las personas que más sufren, tratando, desde la cercanía, de seguir sembrando esperanza. La enfermedad centra nuestra atención permanentemente y, además, estamos percibiendo como esta crisis sanitaria genera secuelas socioeconómicas que, como siempre, se están repartiendo desde la implacable lógica de la desigualdad. Sus consecuencias afectan con mayor intensidad, perduran más en el tiempo e incluso se instalan permanentemente en personas, familias y grupos sociales en situación de vulnerabilidad y exclusión.

Por eso desde Caritas “te invitamos” a reflexionar sobre el papel que una comunidad cristiana acogedora debe ejercer, buscando la máxima coherencia entre lo que proclamamos y lo que hacemos cada día. Las propuestas que seamos capaces de concretar, serán testimonio, signos e indicadores de acogida de nuestras comunidades.

Nos resuena la lectura, “Cada árbol se conoce por su fruto... El hombre bueno, del buen tesoro de su corazón saca lo bueno.” (Lc 6, 44a. 45a)

Planteamos en esta campaña fijar nuestra atención en el papel de uno de los ámbitos básicos de la inclusión social: el empleo. Es un elemento clave que facilita la autonomía de las personas, pero insistimos en que no nos vale cualquier empleo, sino aquel que acompaña el desarrollo y las capacidades de las personas, reconociendo y respetando su dignidad. Lo llamamos “empleo inclusivo”. En el cartel de campaña se muestran ejemplos de nuestras empresas, que te pedimos apoyes, con las que construimos esta economía solidaria y social.

Celebremos con alegría y en comunidad, la fe compartida en un Dios que anhela y se compromete cada día por una sociedad fraterna en la que se presta especial atención a las personas más frágiles.

Recibe un cálido abrazo

Carlos Bargos  
Director